

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Jendaurrean jartzen baita 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoa «4656-03 VILLARREAL» eroale-aldaketa dela-eta «VALVULAS VILLARREAL» Aterpez Kanpoko Transformazio-Zentroko deribazioan, Legutioko udal-mugartean (Araba)

Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (2020ko apirilaren 24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000ko abenduaren 27ko BOE) zehaztutako ondorioetarako, eta testu horretako azken xedapenatarik lehenengoan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, jendaurrean erakusten da beherago zehaztu jarduketa, hain justu ere eskatzailearen arabera desjabetu beharrekoak diren ondasun eta eskubideen zerrenda banakatu eta zehatzarekin batera.

- Eskatzailea: I-De Redes Electricas Inteligentes, SAU, helbidea: Urartea kalea 2.
- Eskabidea: erabilera publikokoa dela deklaratzeko.
- Helburua: zonaldean energia elektrikoaren horniketaren kalitatea hobetzea.
- Erreferentzia: 01ATY 202000038.

3,2 kV-ko aireko linea elektrikoa «4656-03 VILLARREAL» eroale-aldaketa dela-eta «VALVULAS VILLARREAL» Aterpez Kanpoko Transformazio-Zentroko deribazioan.

- Linearen ibiltartea: Legutioko udal-mugartea (Araba).
- Proiektuak eraginpean hartzen dituen ondasun eta eskubideak: iragarki honen eranskinean jasotakoak.
- Aurrekontua: 38.787,53 euro.

Eta guztiak jakin dezaten ematen da argitara hau, eta batez ere proiektuek eraginpean hartzen dituen lurren jabeak eta gainontzeko titularrak jakitun egon daitezela (jabe eta titular horien zerrenda iragarki honen amaieran jasotzen da), hain justu ere proiektua aztertzeko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arabako Lurralde Bulegoan (Samaniego kaleko 2, Vitoria-Gasteiz), dagokion udalean edo www.euskadi.eus web-orrian (Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuei buruzko Informazioa azpialdean: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/energia-meategiak/hasiera/>, eta aipatutako tokietan egokitzen diren alegazioak aurkezteko (bi ale). Horretarako, hogeitun eguneko epea egongo da, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 9a

Arabako lurralde ordezkarria
JESÚS PASCUAL LORENTE

ERANSKINA

Eraginpeko ondasunen eta eskubideen zerrenda
 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoa «4656-03 VILLARREAL» eroale-aidaketa dela-eta «VALVULAS VILLARREAL» Aterpez Kanpoko
 Transformazio-Zentroko deribazioan, Legutioiko udal-mugartean (Araba)

UDALERRIA	Zk	JABEAREN DATUAK			DATU KATASTRALAK					AFEKTATIOAK				
		Jabea	Helbidea	Hertia	Poligonoa	Partzela	Laborea	Euskarri-zk.	Euskarri azalera (m ²)	Linearen luzera (m)	Aireko zortasunaren azalera (m ²)	Aldi baterako okupazioa (m ²)		
Legutio	1	Rosario Manzano Gutierrez	Paseo de Cervantes, n ^o 7A-3 ^o iz	01007-Vitoria-Gasteiz	1	1129	LEHORREKOA	1023	1,17	167,73	1050,43	100		
Legutio	6	Eduze Aranzela Martinez de Sabarite	El Cid, 12-1 ^o iz	1152	1	1152	LEHORREKOA	-	-	24,79	78,31	0		